



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko ekainaren 22a

71. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planaren Ohiz kanpoko Planari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroan Animaliak Babestekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak bazter utzia (6. or.).
- Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (6. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Abiadura Handiko Trenaren azpiegiturak eragindako sinergia positiboak baliatuta Erribera aldeko azpiegitura logistikoak hobe ditzan; zehazki, Cortesen eta Tuteran. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen zehatz dezan Ebro ibaia leheneratzeko eta babesteko plana betetzeko egutegia. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendiko aterpe libreen sarea leheneratzeko eta eraikitzeko plan bat abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea betetzeko erregelamendu berria presta dezan. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pobreziaren behatokia sor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko hauteskunde-gastua gutxitzeko azterlan-proposamen bat igor dezan. Osoko Bilkurak onetsia (10. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Moderna Planeko lanak bukatzeko behar diren jarduketak egin ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (11. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da komunikazio bat igor dezan hezkuntza nahiz osasun arloan darabilen politikaren ardatzei eta lehentasunei buruz. Mozioa erretiratzea (12. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahultasun egoera berezian egoteagatik senide-tze-ekintzak behar dituzten herrien zentsua egin dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (12. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen epe laburrean aldaketarik egiteko tributuetan. Galdera erretiratzea (13. or.).
- Galdera, “Liburuzainen prestakuntza” eta “Hitzarmena IPESekin, dokumentazio zentroa mantentzeko” kontusailei buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).
- Galdera, “Kultur kudeatzaileen prestakuntza”, “Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmena” eta “Lenaers Fundazioarentzako laguntza” kontusailei buruzkoa. Galdera erretiratzea (13. or.).
- Galdera, jakiteko zer urrats egin dituen Nafarroako Gobernuak 2010/2011 ikasturtean bermatuta egon dadin Nafarroako ikastetxe guztietan Nafarroako Foru Komunitatearen curriculum ofiziala betetzen duten testuliburuak eta material osagarriak erabiliko direla, José Andrés Burguete Torres jaunak egina (14. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuarentzat euskararen normalizazioak duen esanahiari buruzkoa, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko zer gastu eragin duen Nafarroako Abiadura-zirkuituaren inaugurazioak eta noiz berreskuratuko den egindako inbertsioa, Ana Figueras Castellano andreak egina (15. or.).
- Galdera, iruzur fiskalaren aurkako gobernuaren jardunari buruzkoa, Juan José Lizarbe Baztán jaunak egina (16. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planaren Ohiz kanpoko Planari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2010eko ekainaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planaren Ohiz kanpoko Planari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2010eko ekaiaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Legea, 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planaren Ohiz kanpoko Planari buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Urriaren 24ko 16/2008 Foru Legeak 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Plana onetsi zuen, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 61. artikuluan xedatutakoarekin bat; plana toki entitateekiko lankidetzak ekonomikorako tresna da, eta xede nagusizat du Foru Komunitate osoan nahitaezko udal zerbitzuak eman daitezen bermatzea.

Aipatutako 16/2008 Foru Legearen 1.2 artikuluan ezartzen da Toki Inbertsioen Planak bi zati izanen dituela: ohiko plana eta ohiz kanpoko plana; horrez gain, 6. artikuluan dio Inbertsio Planaren indarraldiko bigarren urteko lehen seihilekoa amaitu aurretik, Nafarroako Gobernuak foru lege proiektu bat onetsiko duela, toki inbertsioen ohiz kanpoko plan bat arautzeko, bere zuzkidura eta guzti. Ohiz kanpoko planaren helburua izanen da honako toki azpiegituretan egin beharreko inbertsioei aurre egitea: batetik, toki entitateek eskatu bai, baina ohiko planeko plan zuzendarietan eta toki programazioan sartu ez ziren toki azpiegiturek, eta bestetik, oinarriko zerbitzuak emateko xedea eta banakako defizitaren gehieneko kalifikazioa duten azpiegiturek, horiek ez betetzeak arriskuan jartzen

badu aipatutako xedea, eta lurraldean desorekak sortzen baditu, ukitutako populazioa eta toki entitateak kokatuta dagoen eskualdeko baldintza sozio-ekonomikoak kontuan hartuta ohiz kanpoko tratamendua behar duten desorekak alegia. Hala ere, ohiz kanpoko planera bideratutako funtsekin "zeharbideen urbanizazioa" atalean sartutako jarduketak finantzatzea aurreikusten du, baldin eta jarduketa horien exekuzioa Nafarroako Gobernuak Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuarekin koordinaturik egingen dela bermatzen badu Gobernuak ohiko planak indarra hartu ondoren.

Ohiko planaren exekuzioa oso egokia izan da orain arte, baina zenbait gorabehera ere atzeman dira, eskaerak zein izanen diren alde aurretik ez jakiteak eta horietan lehentasunak ezarri beharrik eragindakoak, lurralde desorekak gertatzen baitira, hain zuzen ere ohiz kanpoko plan honetan bideratu beharrekoak.

Esandakoaren haritik, zuzendu beharreko egoera hauek atzeman dira:

– Badira ohiko planean sartutako zenbait obra, plan zuzendari eta toki programaziokoak, dagokien araubide bereziko ekarpena eskuratu ez dutenak, planean jasotzen den aurrekontu muga dela eta.

– Ohiko planean sartutako sareetako obra batzuk ezin daitezke egin, sartu gabeko zoladura lanekin lotuta daudelako.

– Era berean, 16/2008 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian finkatzen den mugaren ondorioz –populazioaren arabera gehieneko portzentajeak–, 10.000 biztanletik beherako toki entitateetako obrak eta sareen arloko eskumena duten mankomunitateetakoak ez dira sartu, eta beharrezkoa da egoera horiek zuzentzea, populazioaren arabera diskriminazio negatiboa dakarrelako.

-Azkenik, 16/2008 Foru Legearen aipatutako aurreikuspena dela eta, zeharbideak urbanizatzeko Toki Administrazioa eta Herri Lan, Garraio eta Komunikazio departamentuen artean koordinatuta egiten diren obrak aintzat hartu behar dira, Herri Lanetako Departamentuak inbertsio plana onetsi ondoren onartu dituen kasuan.

Ohiz kanpoko planaren zuzkidura 9.000.000 eurokoa da, 2011ko eta 2012ko ekitaldietan erdibana eginda, 16/2008 Foru Legearen III. eranskinean horretarako aurreikusitakoarekin bat.

Horrenbestez, 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planaren Ohiz kanpoko Plana Toki Inbertsioen Ohiko Planaren aplikazioan eragindako lurralde desorekak zuzentzeko garatuko da, 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 31ko 16/2008 Foru Legearen III. eranskinean aurreikusitako zuzkidurarekin.

1. artikulua. Ohiz kanpoko Planaren xedea.

Foru lege honen xedea da Toki Inbertsioen Ohiz kanpoko Plan bat ezartzea, 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 6. artikuluan xedatutakoarekin bat, toki entitateek eskatu bai baina aipatutako eperako ohiko planean sartu ez ziren toki azpiegituretan egin beharreko inbertsioei aurre egiteko.

2. artikulua. Toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren kargurako ekarpenak.

Ohiz kanpoko plan honi Nafarroako Aurrekontu Orokorretako kapital transferentzien kargura egiten zaizkion ekarpenak, 9.000.000 euroko balioa dutenak, bi urterako dira, 2011 eta 2012rako, hailetako bakoitzean 4.500.000 euro.

3. artikulua. Ohiz kanpoko planean sar daitezkeen inbertsioak.

Plan berezian sar daitezkeen inbertsioak kasu hauetakoren baterako ekarpenak izan beharko dira:

a) 100eko 10 handitzea, gehienez ere 2.100.000 euro egin arte, plan zuzendarietako eta toki programazioko obretarako ekarpenak, ohiko planean sartuta daudenak baina, plan horretan dagoen aurrekontu mugaren ondorioz, horiek jaso behar dituzten toki entitateei dagokien araubide bereziko ekarpena egin gabe.

b) Aurrekontu mugaren ondorioz ohiko planean sartu ez ziren zoladura lanak, planean sartutako sareetako lanekin lotuta daudenak, sartzeari, gehienez ere 500.000 euroko ekarpenarekin.

c) 10.000 biztanletik beherako toki entitateek sustatutako obrak, Toki Inbertsioei buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian ezarritako gehieneko portzentajeen aplikazioak mugatutako ekarpenak dituztenak, osorik sartzeko finantzazioa osatzea, gehienez ere 2.200.000 euroko ekarpenarekin.

d) Udalez gaindiko toki entitateek sustatutako sareetako obrak sartzeari eta, halakorik badago, haiekin lotutako zoladura lanak ere, baldin eta ohiko planean sartu gabekoak eta azpiegitura bakoitzaren eskumena duten toki entitateek eskatuak badira.

Halaber, Nafarroako Gobernuaren Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuaren erabakiz exekuzio koordinatua bermatuta duten eta Toki Inbertsioen Ohiko Planak indarra hartu ondokoak diren "zeharbideak urbanizatzeko" jarduketei aurre egitea.

Horretarako, ohiz kanpoko plan honen zuzkiduraren eta aurreko lerroaldeetan jasotako kasuetarako onetsi diren ekarpenen baturaren arteko aldea erabiliko da, kontuan hartuta foru lege honen lehen xedapen gehigarrian aurreikusitako erreserba.

4. artikulua. Prozedura.

Nafarroako Gobernuak ohiz kanpoko plana onetsiko du foru lege honetan ezarritako betebeharrak kontuan hartuta, eta une horretatik aurrera, plan horren garapen, kudeaketa eta exekuziorako prozedura 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legean eta hori garatzeko Erregelamenduan ezarritakoa izanen da.

Nolanahi ere, foru lege honen 3. artikuluko d) atalean aurreikusitako kasuetan ez dira aplikatuko 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarrian, arestian aipatutakoan, ezarritako gehieneko ekarpenen mugak.

5. artikulua. Finantza, ekonomia eta aurrekontuen arloko arauak.

Ohiz kanpoko planaren ekarpenen finantzaketa ekonomikoaren eta aurrekontuen araubidea Nafarroako toki entitateek tributuetan parte hartzeko funtsaren kapital transferentziak kudeatzeko ezarritako arauen arabera izanen da.

Lehen xedapen gehigarria. Inbertsioetako aurrekontuak handitzea.

Ohiz kanpoko planean sartzen diren inbertsioen zenbatekoa 100eko 10 bitarte handitu ahalko da, toki ogasunen funtsaren kargurako konpromiso

ekonomikoa finkatzen den unean; hori dela eta, foru lege honen 2. artikuluan ezartzen diren ekarpenen 100eko 7,5 erreserban utziko da.

Bigarren xedapen gehigarria. Sareetarako baliabide ekonomikoen banaketa.

Foru lege honen 3. artikuluko d) atalean aurreikusitako sareetako obretarako baliabide ekonomikoa, salbu eta zeharbideei dagokiena, sareen arloko eskumena duten mankomunitateen artean banatuko da, portzentaje muga hauekin:

- Iruñerriko Mankomunitatea: 100eko 45
- Jurramendiko Mankomunitatea: 100eko 25
- Erdialdea-Mairagako Mankomunitatea: 100eko 10
- Moncayoko Mankomunitatea: 100eko 10

– Izarbeibarko Mankomunitatea: 100eko 10

Hirugarren xedapen gehigarria. Dokumentazioa aurkezteko epea.

2011n eta 2012an egin beharreko inbertsioetarako dokumentazioa aurkezteko epea 2009-2012 eperako Toki Inbertsioen Planari buruzko urriaren 24ko 16/2008 Foru Legearen 16.1 artikuluan urte horietarako ezarritako bera izanen da.

Xedapen indargabetzaile bakarra.

Indarrik gabe geratuko dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroan Animaliak Babestekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko ekainaren 10ean egin-dako Osoko Bilkuran, Nafarroan Animaliak Babes-teko Foru Lege proposamena aintzat hartzea era-baki zuen. Proposamen hori Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamenta-riek elkarteak aurkeztu zuen eta 2010eko maiatza-

ren 13ko 54. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 11n

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Legebiltzarrak 2010eko ekainaren 10ean egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena baztertea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2010eko ekainaren 10ean egin-dako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez har-tzea Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarietako elkarteak aurkeztutako Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legea aldatzeko Foru Lege propo-samena.

Proposamen hori 2010eko apirilaren 30eko 49. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argi-taratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Abiadura Handiko Trenaren azpiegiturak eragindako sinergia positiboak baliatuta Erribera aldeko azpiegitura logistikoak hobe ditzan; zehazki, Cortesen eta Tuteran.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Abiadura Handiko Trenaren azpiegiturak eragindako sinergia positiboak baliatuta Erribera aldeko azpiegitura logistikoak hobe ditzan; zehazki, Cortesen eta Tuteran".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Abiadura Handiko Trenaren azpiegiturak eragindako sinergia positiboak baliatuta Erribera aldeko azpiegitura logistikoak hobe ditzan; zehazki, Cortesen eta Tuteran

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Abiadura Handiko Trena bezain oinarrizko azpiegitura batek sorturiko sinergia positiboak aprobetxatze aldera, ahalik eta lasterren gara daitezen Erribera aldean eta, zehazki, Cortesen eta Tuteran planteaturiko azpiegitura logistikoak, sinergia osagarriak dituzten azpiegitura gisa tratatuak izanik, lehena ekimen pribatuaren eta bigarrena Administrazio Publikoaren ekimenaren ondoriozkoa (azken hori, Nafarroa 2012 Planean sartua), era horretan, egiazki, haiek aldi berean eraiki ahal izan daitezen Abiadura Handiko Trenaren korridorearen eraikuntzarekin batera, halako moduz non biak funtzionatzen hasi ahal izanen baitira trenbide berrietatik lehenbiziko trena pasatzen hasten den unerako, eta azpiegitura horren sinergia mesedegarriak neurri berean baliatu ahal izanen baitituzte.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen zehatz dezan Ebro ibaia leheneratzeko eta babesteko plana betetzeko egutegia.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen zehatz dezan Ebro ibaia leheneratzeko eta babesteko plana betetzeko egutegia."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da lehenbailehen zehatz dezan Ebro ibaia leheneratzeko eta babesteko plana betetzeko egutegia

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lehenbailehen zehatz dezan, Espainiako Gobernuarekin lankidetzan, Ebro ibaiaren Nafarroako zatian ibai parke bat egiteko egutegia.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduketa garrantzitsu hori betetzeko eta finantzatzeko egutegia zehatz dezan, udalekin, erakunde autonomoekin eta tokiko garapenaren eta ingurumenaren arloan lan egiten duten gizarte-elkarteekin lankidetzan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, behin plan zuzendariaren edukia ezagututa eta El Bocalen inguruan egin beharreko jarduketak zehaztuta eta zenbatetsita, kasuko aurrekontu-gaikuntza ezan dezan, ahal duen neurrian, 2014ko aurrekontuetan, lehen jarduketa horiek bukatu ahal izateko.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendiko aterpe libreen sarea leheneratzeko eta eraikitzeke plan bat abian jar dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendiko aterpe libreen sarea leheneratzeko eta eraikitzeke plan bat abian jar dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da mendiko aterpe libreen sarea leheneratzeko eta eraikitzeke plan bat abian jar dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Mendi Federazioarekin eta Mendizaleen Elkarteekin lankidetzan, gure erkidegoko mendiko aterpe libreen sarea leheneratzeko eta eraikitzeke plan bat abian jar dezan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea betetzeko erregelamendu berria presta dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea betetzeko erregelamendu berria presta dezan."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legea betetzeko erregelamendu berria presta dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen exekuzioaren gaineko erregelamendu berri bat egin dezala, aipatu Foru Legeak bere 1.2. artikuluan ezarritako ezinbertzeko helburuei loturik eta Nafarroako Arartekoak 2010eko martxoan aurkeztutako txostena kontuan hartuz.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pobrezia- ren behatokia sor dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pobrezia-
ren behatokia sor dezan”. Horren jatorria da Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako mozio bat, 2010eko maiatzaren 14ko 55. Nafarroako Parla-
mentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artiku-
lan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da pobrezia- ren behatokia sor dezan

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du hurrengo bilkuraldiaren hasie-
ran, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako
Batzordean aurkez dezan Nafarroako Bazterketa
Sozialaren kontrako II. Plana.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du Nafarroako Bazterketa
Sozialaren kontrako II. Planeko neurri eta propo-
samenen artean, Pobrezia-
ren behatokia sor dezan. Behatoki hori
zuzenean edota Nafarroako Unibertsitate Publi-
koarekin eta bazterketa sozialaren arloan lan egiten
duten gizarte-entitateekin eginiko hitzarmen baten
bidez kudeatuko du.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako
Gobernua premiatzen du Pobrezia-
ren behatokia gutxienez ere honako eginki-
zunak izan ditzaan –betiere, horiek berretsi behar-
ko dira, kasua bada, dagokion jardura-ereduaren
bitartez–:

- datu-bilketa
- ikerketa
- gogoeta
- gizarte politiken jarraipena
- gizartea kontzientziaztea pobrezia-
ren buruz
- hobetzeko proposamenak, efizientzia publi-
koaren ikuspuntutik.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko hauteskunde-gastua gutxitzeko azterlan-proposa- men bat igor dezan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 11n egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako
Foru Komunitateko hauteskunde-gastua gutxitze-
ko azterlan-proposamen bat igor dezan”. Horren
jatorria da Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako
Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkez-
tutako mozio bat, 2010eko ekainaren 4ko 63.

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argi-
taratua.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artiku-
lan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako
Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin
agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez,
Nafarroako Gobernua premiatzen da
Nafarroako Foru Komunitateko hauteskunde-gastua gutxitzeko azterlan-proposamen bat igor dezan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du hiru hilabeteko epean azterlan-proposamen bat aurkez dezan Foru Araubideko Batzordean Nafarroako Foru Komunitateko hauteskunde-gastua gutxitzeko. Gastu hori doituko da bizi dugun krisialdiaren ondoriozko inguruabarren eta testuinguru ekonomikoaren arabera, krisialdia dela-eta hauteskunde-gastuetan ere doikuntzak egin behar baitira.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Moderna Planeko lanak bukatzeko behar diren jarduketak egin ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 10ean egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Moderna Planeko lanak bukatzeko behar diren jarduketak egin ditzan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Erabakia. Horren bidez, Nafarroako
Gobernua premiatzen da Moderna
Planeko lanak bukatzeko behar diren
jarduketak egin ditzan**

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren jarduketak egin ditzan Moderna Planeko lanak azkartu, amaitu eta burutzeko eta 2010eko irailaren 2a baino lehenago plan hori eztabaidarako eta bozketarako Parlamentura igortzeko.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da komunikazio bat igor dezan hezkuntza nahiz osasun arloan darabilen politikaren ardatzei eta lehentasunei buruz.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 10ean egindako bileran, erabaki zuen Ezkierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko ondoko mozioa erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da komunikazio bat igor dezan hezkuntza

nahiz osasun arloan darabilen politikaren ardatzei eta lehentasunei buruz".

Mozio hori 2010eko maiatzaren 7ko 51. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahultasun egoera berezian egoteagatik senidetze-ekintzak behar dituzten herrien zentsua egin dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da ahultasun egoera berezian egoteagatik senidetze-ekintzak behar dituzten herrien zentsua egin dezan".

Legebiltzarrak 2010eko ekainaren 10ean egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2010eko maiatzaren 14ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen epe laburrean aldaketarik egiteko tributuetan.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Osoko Bilkurak, 2010eko ekainaren 10ean egindako bileran, erabaki zuen Ion Erro Armendáriz jaunak aurkezturiko galdera, jakiteko Nafarroako Gobernuak asmorik ote duen epe laburrean aldaketarik egiteko tributuetan, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko ekainaren 8ko 64 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, “Liburuzainen prestakuntza” eta “Hitzarmena IPESekin, dokumentazio zentroa mantentzeko” kontusailei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2010eko ekainaren 16an egindako bileran, erabaki zuen Román Felones Morrás jaunak aurkezturiko galdera, “Liburuzainen prestakuntza” eta “Hitzarmena IPESekin, dokumentazio zentroa mantentzeko” kontusailei buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko maiatzaren 14ko 55 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, “Kultur kudeatzaileen prestakuntza”, “Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmena” eta “Lenaers Fundazioarentzako laguntza” kontusailei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Legebiltzarreko Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Batzordeak, 2010eko ekainaren 16an egindako bileran, erabaki zuen Román Felones Morrás jaunak aurkezturiko galdera, “Kultur kudeatzaileen prestakuntza”, “Barañaingo Auditorioarekiko hitzarmena” eta “Lenaers Fundazioarentzako laguntza” kontusailei buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraztea.

Galdera hori 2010eko maiatzaren 14ko 55 Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2010eko ekainaren 14an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Galdera, jakiteko zer urrats egin dituen Nafarroako Gobernuak 2010/2011 ikasturtean bermatuta egon dadin Nafarroako ikastetxe guztietan Nafarroako Foru Komunitatearen curriculum ofiziala betetzen duten testuliburuak eta material osagarriak erabiliko direla.

JOSÉ ANDRÉS BURGUETE TORRES JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Andrés Burguete Torres jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer urrats egin dituen Nafarroako Gobernuak 2010/2011 ikasturtean bermatuta egon dadin Nafarroako ikastetxe guztietan Nafarroako Foru Komunitatearen curriculum ofiziala betetzen duten testuliburuak eta material osagarriak erabiliko direla.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Convergencia de Demócratas de Navarra foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari José Andrés Burguete Torres jaunak, Legebiltzarreko

Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, adierazi du:

2010eko apirilaren 22an, Parlamentuko Osoko Bilkurak erabaki bat onetsi zuen, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen zen Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan erabiltzen diren testuliburu eta bestelako material osagarri guztiek Nafarroako curriculum ofiziala hertsiki bete dezaten.

Hori dela eta, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu diot Hezkuntzako kontseilariari, ondokoa jakite aldera:

Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak parlamentu honen ebazpena betetzeko, hain zuzen ere 2010/2011 ikasturtean bermatuta egon dadin Nafarroako ikastetxe guztietan Nafarroako Foru Komunitatearen curriculum ofiziala betetzen duten testuliburuak eta material osagarriak erabiliko direla eta Nafarroako Gobernuak ez dela mugatuko curriculum hori betetzen ez dutenak doakotasun sistematik kanpo uztera?

Iruñean, 2010eko ekainaren 17an

Foru parlamentaria: Jose Andrés Burguete Torres

Galdera, Nafarroako Gobernuarentzat euskararen normalizazioak duen esanahiari buruzkoa.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuarentzat euskararen normalizazioak duen esanahiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari M^a Luisa Mangado Cortesek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko ondoko galdera aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak ekainaren 24ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer esan nahi du zuentzat, Nafarroako Gobernuko jaun-andreok, euskararen normalizazioak?

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado

Galdera, jakiteko zer gastu eragin duen Nafarroako Abiadura-zirkuituaren inaugurazioak eta noiz berreskuratuko den egindako inbertsioa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakiteko zer gastu eragin duen Nafarroako Abiadura-zirkuituaren inaugurazioak eta noiz berreskuratuko den egindako inbertsioa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Figueras Castellano, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren

babesean, gaurkotasuneko ondoko galdera aurkeztu du, hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

Zioen azalpena:

Nafarroako Abiadura-zirkuitua eraikitzeke lanak ia guztiz Nafarroako Aurrekontu Orokorren bidez ordainduko dira.

Sprin sozietate publikoa da zirkuituaren jabetzaren gaineko partaidetzaren gehiengo oso handi bat daukana. Sozietate hori nafar guztien jabetzapekoa da, eta, horrenbestez, jakin beharra dago non, nola eta zergatik inbertitzen duen.

Galdera:

Zenbateko gastua eragin du Nafarroako Abiadura-zirkuituaren inaugurazioak eta zein epetan kalkulatu du gobernuak inbertsioa berreskuratzea?

Iruñean, 2010eko ekainaren 18an

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, iruzur fiskalaren aurkako gobernuaren jardunari buruzkoa.

JUAN JOSÉ LIZARBE BAZTÁN JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko ekainaren 21ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan José Lizarbe Baztán jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, iruzur fiskalaren aurkako gobernuaren jardunari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan José Lizarbe Baztán jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak ekainaren 24ko Osoko Bilkuran erantzun dezan:

Zioak

Legegintzaldi honetan zehar, Nafarroako Gobernuaren eta PSN-PSOEn artean erdietsitako aurrekontu-akordioetan, nabarmendu izan da iruzur fiskalaren aurkako borrokan sakondu beharra dagoela, are gehiago bizi duguna bezalako krisi giro batean. Ondorio horietarako, honakoa galdetzen diogu Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari:

- Zer ekintza markatzen ari dira iruzur fiskalaren aurkako gobernuaren jarduna? Zein emaitzarekin? Gobernuaren ustez, zein ekintza berri eraman litezke aurrera arlo horretan?

Iruñean, 2010eko ekainaren 21ean

Foru parlamentaria: Juan José Lizarbe Baztán